



**Arartekoaren ebazpena, 2012ko ekainaren 29koa. Horren bidez, garraioaren erabiltzaile guztiak informazio sistema baliatzen dutela bermatzeko beharrezko neurri guztiak har ditzala gomendatzen zaio Gasteizko Udalari. Hartara, ikusmen urritasuna dutenek Gasteizko hiri garraioaren zerbitzua modu normalizatuan, autonomoan eta seguruan erabiltzea bermatuko da.**

### **Aurrekariak**

1. Kexa-idazkia jaso zen erakunde honetan, 120 pertsonak izenpetuta. Idazki horretan, zalantzan jartzen zen Gasteizko hiri autobusetan ezarritako egungo ahots-sistema, zeren eta ez baita eskuragarria ez normalizatua ikusmen urritasuna duten pertsona gehienentzat. Ildo horretan, Espainiako Itsuen Erakundeko (ONCE) afiliatuek soilik lor dezakete tresna berezia, urrutiko agintetresna elektronikoa, TUVISAren hiriko autobusetan geltokiak iragartzen dituen ahots-sistema martxan jartzen duena. Diotenez, gainera, horrek esan nahi du ikusmen urritasuna dutenek eta itsuek, ONCEko afiliatuak ez badira, hiriko autobusetan sartzea erabat murriztuta dutela, hots, ikusmen urritasun larria dutenek eta atzerritar itsuek, talde horretako %85ek baino gehiagok hain zuzen ere.

Halaber, salaketan adierazitakoaren arabera, Gasteizko udalak nahiz TUVISAK (hiriko garraio zerbitzuaren esleipendunak) hauxe besterik ez diete jakinarazten erabiltzaileei: ONCEren bulegoetara jo behar dutela, 09:00etatik 14:00etara, hiriko garraioa erabiltzeko beharrezko tresnak eskuratu ahal izateko zein baldintza bete behar diren ezagut dezaten.

Azkenik, idazkian aipatzen da sistema hori baino lehen ziber-ahotsa erabiltzen zela, tranbian erabiltzen den ahots-sistemaren antzekoa eta ikusmen urritasuna duten guztiak informazioa eskuratzen dutela bermatzen duena.

2. Arartekoak eginiko eskaeraren erantzunez, TUVISAko gerenteak honako hauek jakinarazi dizkigu, besteak beste:

TUVISAK autobus barruko ahozko informazio-sistema bat jarri zuela 1993tik 2008ra, eta ziber-ahotsa izeneko sistema hori Gasteizko Udalaren eta ONCEren partaidetza duen enpresa baten laguntzaz garatu zuen TUVISAK.

Eragozpen bat zuen sistemak: informazioa automatikoki eta sekuentziaka ematen zuela geltoki bakoitzera hurbiltzean. Ondorioz, eragozpena zekarkien horrek enpresako gidariei, *zeren eta gidariek, nahitaez, behin eta berriz entzun behar izaten baitzituzten lineako mezu errepikakorrak lanaldi osoan.*



UVISAK, 2009az gero, autobusen barruko ahozko informazio sistema du ezarrita, ikusmen urritasun duten pertsonen eskatu ahala dabilena.

Sistema hori bi pultsadore dituen aginte-tresna bat erabiltzean datza; bata zenbait hiritan (ez da Gasteizen kasua) jarritako semaforoan adierazle selektiboak martxan jartzeko, eta beste pultsadorea beste zerbitzuetarako erabiltzen da, hain zuzen ere ikusmen urritasuna duten pertsonen zerbitzua emateko. Zerbitzuon artean, TUVISAREN hiriko autobusen barruan ematen den ahozko informazioa dago, baita hiriko geltoki egokietan 2011n jarritako informazio-guneetan ematen den informazioa ere.

Aginte-tresna ONCEN eskura daiteke, eta ez da egia erakunde horrek soilik bere bazkideei saltzen diela.

TUVISAK, garai batean, elkarteei jakinarazi zien aginte-tresna autobus guztien barruan jarritako sistema hornitzen duen enpresaren bitartez eskura zitekeela, baita aipatutako aginte-tresnen enpresa fabrikatzailetik zuzenean ere.

Azkenik, urrutiko aginte-tresnaren prezioa 22,50 € zela jakinarazi zen, gehi BEZaren %8a. Hortaz, zenbatekoa, guztira, 26,20 € zen.

### **Gogoetak**

1. Ezintasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena 2008ko maiatzaren 3an sartu zen indarrean Espainian. Une horretatik aurrera, Espainiako Konstituzioaren 96. artikulua lehengo atalean ezarritakoarekin bat eginez, barruko ordenamenduaren zati bat da.

Hitzarmena onartu duten estatuek konpromisoa hartu dute hitzarmenean aitortzen diren eskubideak benetako bihurtzeko beharrezkoak diren politikak, legeak eta administrazio neurriak aplikatzeko. Era berean, ezgaitasunak dituzten pertsonak bereizkeriaren esku jartzen dituzten legeak, araudiak, ohiturak eta jardunak indargabetuko dituzte. (4. artikulua).

Zentzu horretan, gogorarazi nahi dugu hitzarmenak ezintasunen bat duten pertsona guztiak eskubideak dituzten subjektuak direla ezartzeaz gain, xedatu duela euren eskaera eta beharrei erantzuna eman behar zaiela gainontzeko herritarrek dituzten aukera berdinak eduki ditzaten.

Irisgarritasunaren arloan horrek esan nahi du estatuek oztopoak identifikatu eta kendu behar dituztela, ezgaitasunak dituzten pertsonak ingurune fisiko horietara, garraibideetara, instalazioetara eta zerbitzu publikoetara heldu ahal izateko, baita informazio eta komunikazio teknologietara ere. Horren ildotik, hala dio hitzarmeneko 9.1 artikulua:

*"A fin de que las personas con discapacidad puedan vivir en forma independiente y participar plenamente en todos los aspectos de la vida, los Estados Partes adoptarán medidas pertinentes para asegurar el acceso de las personas con discapacidad, en igualdad de condiciones con los demás, al entorno físico, el transporte, la información y las comunicaciones, incluidos los sistemas y las tecnologías de la información y las comunicaciones, y a otros servicios e instalaciones abiertos al público o de uso público, tanto en zonas urbanas como rurales. Estas medidas, que incluirán la identificación y eliminación de obstáculos y barreras de acceso, se aplicarán, entre otras cosas, a:*

*a) Los edificios, las vías públicas, el transporte y otras instalaciones exteriores e interiores como escuelas, viviendas, instalaciones médicas y lugares de trabajo..."*

Era berean, adierazi behar dugu Espainiako Konstituzioko 9.2 artikulua honela dioela: *"botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen"*. Konstituzioko agindu horretan, berdintasuna lege aurreko tradiziozko berdintasunetik harago doa. Egun, konstituzioko 14. artikuluan ere jasotzen da, esparru zabalagoan – *bizi baldintzetan*- eragina izateko asmoz. Printzipio horri eskerrak, hasieratik desberdintasun egoeran dauden talde sozialek botere publikoek benetako berdintasuna sustatzeko hartutako neurrien onurak jaso ditzakete.

Horregatik, urritasunen bat duten pertsonen berdintasuna erdiets dezaten, ulertu behar da neurriak hartu behar direla, besteak beste garraioa erabiltzeko erraztasunak ematekoak.

Aukera berdintasunei, bazterkeriarik ezari eta ezintasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 1. artikulua idazketa berriak (**Ezintasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren** araudira egokitzeko abuztuaren 1eko 26/2011 Legeak aldatu duena) zera ezarri du:

*"Lege honen xedea da ezinduek aukera berdintasuna izateko duten eskubidea bermatzeko eta gauzatzeko neurriak ezartzea, Konstituzioaren 9.2, 10, 14 eta 49. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.*

*Ondorio horietarako, aukera-berdintasuna deritza diskriminaziorik ez izatea, zuzenean edo zeharka urritasunagatik edo urritasuna oinarri hartuta, betiere honako hau barne: ezinduek baldintza beretan giza eskubide guztiak eta oinarrizko askatasun guztiak politikaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arloan edo beste edozein arlotan aintzatestea edo erabiltzea eragozteko edo*

*ondoriorik gabe uzteko xede duen edozein bereizketa, bazterketa edo murrizpen. Halaber, aukera-berdintasuna deritzo urritasuna duenak bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean eskubide osoarekin parte hartzeko dituen eragozpenak saihesteko edo konpentsatzeko ekintza positiboko neurriak hartzeari.*

Abenduaren 2ko /2003 Lege hori garatzeko eta betearazteko, ezinduek garraibideetan sartzeko eta erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak arautzen dituen azaroaren 23ko 1544/2007 Errege Dekretua onetsi da.

Zentzumenetan urritasuna duten eta hiriko autobusak erabiltzen dituzten bidaiarientzako informazioa bermatzeko baldintzak arautzen dituen Errege Dekretuaren 2.1.2 n) idatz-zatiko V. Eranskinean ezarri denez, dispositibo bat jarri beharra dago ibilgailuen barruko aldean, gelditzeko eskaerari eta hurrengo geltokiaren izenari buruzko informazioa eman dezan ikusteko eta entzuteko sistemen bidez.

2. Gure eremu autonomikoaren barruan, irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean, gure Erkidegoko pertsona guztiak ingurune fisikoan sartzea eta komunikazioa eskuratzea bermatzeko hartu beharreko neurriak jaso dira, eta bereziki hainbat zioengatik mugaren bat duten pertsonak gizarteratzea errazteko ekintza positiboko neurriak; izan ere, pertsona horiek gizarte desberdintasunean daude, eta inguruabar hori funtsezkoa da herritar guztiek oinarritzotzat jotako eskubideak erabiltzen dituztela ahalbidetzeko.

Legearen 1. artikulua pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lagungarriak diren laguntza teknikoaren erabilera sustatzera behartzen ditu herri botereak, honako hau bermatuz *“hiri-ingurunearen, gune publikoaren, **garraibideen** eta komunikabideen irisgarritasuna, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, zailtasunak komunikazioan edo muga psikiko sentsoriala, aldi baterako zein betiko, dituztenek **era autonomoan** erabil eta goza ditzaten.”* Horretarako, garraibideen irisgarritasunari buruzko xedapen orokorrak ezarri ditu Legearen 5. artikulua.

Lege horretan xedatu dena betetzeko, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua onetsi da, hiri-ingurunean, espazio publikoan, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, baita garraioan irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dituen uztailaren 10eko 126/2001 Dekretua ere. 126/2001 Dekretuaren 4.1.6. artikuluan xedaturikoaren arabera, komunikazioan zailtasunak dituzten pertsonen egokituriko informazio-sistemak eduki behar dituzte ibilgailuek.

Aplikatu beharreko arau-esparrua aztertu ondoren, ez dago zalantzarik kasu honetako herri administrazioek soluzio teknikoak hartu behar dituztela nahitaez, herritar guztiek garraioa erabiltzen dutela bermatzeko.

Gainera, hauxe ezarri da 126/2001 Dekretu horren 4.3.2. artikuluan: *“Hiri-autobusen lineen enpresa titularrak izango dira mugikortasun urriko pertsonak ibilgailuan autonomiaz ontziratuta eta lehorreratzea errazteko eta baita billetea ordaintzea errazteko arduradunak.”*

3. Aztergai dugun kasuan, bidezkoa da esatea gaur egun Gasteizko hiri autobusetan erabiltzen den ahozko informazio-sistema ez dela herritar guztientzako unibertsaltasun eta diseinu printzipioei lotzen zaien soluzio teknikoa, zeren eta erabileran ez baitaie zerbitzu normalizatua ematen ikusmen urritasuna duten erabiltzaileei. Prestaturiko sistemak funtziona dezan, alde aurretik jakin behar du erabiltzaileak erabiltzeko aginte-tresna bat izan behar duela eta ONCEren bulegoetan eskuratu behar dela, ordutegi jakin batean. Horretarako, 26,20 € ordaindu behar ditu. Hori dela-eta, soluzioa eragozpenzat jotzen dugu; izan ere, ezintasunaren ziozko diskriminazioa eragiten du, eta galarazi egiten die hiri garraioa era autonomoan eta berdintasun-baldintzetan erabiltzea ikusmen urritasuna duten pertsonei.

Ziber-ahotsa deritzon sistema lehenago erabiltzen zen Gasteizko hiri garraioaren sisteman 1993tik 2008ra, eta gaur egun beste garraio-bide batzuetan erabiltzen da gure EAEn (Tranbia, Bilboko Metroan) eta beste hiri batzuetako hiri garraioan. Sistema horrek bermatu egiten die garraio-bidearen erabiltzaile guztiei informazio-sistema erabiltzea.

Gaur-gaurkoz, neurriak bultzatu daitezke teknologia berrien bidez *guztiantzako komunikazioa* ahalbidetzeko, egungo barrerak gainditzea ahalbidetzeko, informazioa modu normalizatuan eta garraio-bide zerbitzuko langileei eragozpenik ez ekartzeko moduan errazte aldera.

4. Garraio-bide sisteman irisgarritasuna ere funtsezko oinarria da gizarte eta ekonomia bizitzan aukera-berdintasunean parte hartzeko herritar guztientzat eta, aldi berean, funtsezko elementutzat hartzen da diskriminaziorik ezean oinarrituriko gizarte inklusiboa eraikitzeko.

Horrengatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautu duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan araupeturikoarekin bat etorriz, ondoko hau igortzen zaizu:

## **72/2012 GOMENDIOA, ekainaren 29koa, Gasteizko Udalarari.**

Garraioan Irisgarritasun Baldintzei buruzko Arau Teknikoak onetsi dituen uztailaren 10eko 126/2001 Dekretuaren 4.3.2. artikuluan xedatu denarekin bat etorritik, Gasteizko Udalak Gasteizko hiri-autobus linearen enpresa titularrari exijitu beharko lioke neurriak har ditzala garraioaren erabiltzaile guzti-guztiek informazio-sistema eskuratzen dutela bermatzeko. Hartara, ikusmen urritasuna dutenek era normalizatuan, autonomoan eta seguruan Gasteizko hiri garraioaren zerbitzua erabiltzeko modua dutela bermatuko du.